

LABen komunikatua UPV/EHUko IV. berdintasun planaren inguruan

2024ko otsailaren 12an, Berdintasun Zuzendaritzak IV. Berdintasun Planaren 2. zirriborroa aurkeztu zigun Batzorde Intersektorialean. Bilera hartan, **LABek bi proposamen helarazi zizkion Administrazioari**, bata bestearen ondorioa direnak:

1.- Aurkeztutako IV. Berdintasun Planaren zirriborroak ez zuen betetzen indarreko legeriak eskatzen duen **gutxieneko edukia**, benetakoa eta eraginkorra izan zedin. Hau da, garatu beharreko ekintza bakoitzean ez zen agertzen nola, nork, noiz, zein baliabiderekin etab. burutuko diren. Gainera, aurreikusitako ekintza bakoitzerako, horien betetze-maila zehazten laguntzen duten adierazleak ere falta ziren, baita hauek burutzeko aurreikusitako aurrekontua ere.

2.- LABek UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari **diziplinarteko talde bat sortzea** planteatu zion, Euskal Herriko Unibertsitatearen egoerarekin bat etorriko zen berdintasun-plan eraginkor bat egiteko.

Horren aurrean, Berdintasunerako Zuzendaritzak **Berdintasunerako IV. Planaren 2. zirriborroa bertan behera uztea erabaki zuen**, eta **beste zirriborro bat** aurkezteko konpromisoa hartu zuen. Azken zirriborro hau unibertsitate-komunitateari zabaldu eta egokitze jotzen dituzten ekarpenak egin ditzaten epea irekitzea erabaki zuen. Epe hori martxoaren 1eko 14:00etan amaituko da.

UPV/EHUko LABeko liberatuok lanean ari gara UPV/EHUko IV. Berdintasun Planari ekarpenak egiten, baina, **sindikatuaren afiliatuen zein nahi duzuen langileen ekarpenak ere kontuan hartu nahi ditugu** eta beraz, hauek aurrez aurre gure bulegoetan edo posta elektronikoaren bidez helaraztea eskertuko genizueke. Ekarpene hauek **otsailaren 28a baino lehen** helarazi iezaizkiguzue, mesedez,, behin betiko testua egiteko denbora izan dezagun.

Horrez gain, **LABek zuzenketa bat aurkeztu zion UPV/EHUko aurrekontu-aurreproiektuari**, Berdintasun Planean aurreikusten diren ekintzak gauzatzeko partida propioa izan dezala eskatzeko. **Administrazioak zuzenketa onartu du** eta beraz, 2024ko aurrekontuetan Berdintasun Plana gauzatzeko partida propioa egongo da eta printzipioz, 30.000 eurokoa izango da.

Zuen ekarpenen zain, laster arte!